ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

**Esp.-kodea:** 2014SAPL0003

**U D A L  P L E N O A**
**Bilkura ezohikoa**

## BILKURA DATUAK

| EGUNA: | TOKIA |
|---|---|
| 2014/04/08 | Udaletxea |
| HASIERA ETA BUKAERA ORDUA | |
| 18:00 - 18:40 | |

## BILDUTAKOAK:

Lehendakaria: Inazio Azkarragaurizar Larrea (BILDU)

Zinegotziak:
Amaia Larrañaga Galdos (BILDU)
Ander Rodriguez Lejarza (BILDU)
Josu Pereda Leceta (BILDU)
Maider Morras Azpiazu (BILDU)
Omer Arregi Biain (BILDU)
Iratxe Zeziaga Mendizabal (BILDU)
Juan Antonio Barriocanal Arrieta (BILDU)
Joseba Erramun Askasibar Zendoia (BILDU)
Kepa Urteaga Garcia (BILDU)
Juan Carlos Garitano Ezcurra (EAJ-PNV)
Maria Ubarrechena Cid (EAJ-PNV)
Ibon Arrupe Aldecocea (EAJ-PNV)
Juan Ramon Mendieta Garay (EAJ-PNV)
Aritz Arrieta Kabiketa (PSE-EE)
Raquel Diaz Larracoetxea (PSE-EE)
Francisco Garcia Raya (PSE-EE)
Miren Lorea Lana Jauregi (PSE-EE)
Joxe Etxeberria Iztueta (ARALAR)

Idazkaria: Iñigo Garitano Larrañaga

Beste funtzionario batzuk: Iñaki Balzategi Garai, Kontuhartzailea.

## BILDU EZ DIREN UDALKIDEAK:

Iciar Lamarain Cenitagoya (PP)
Josebe Landaluze Ruiz de Alegria (BILDU)

**BERTARATZE ETA IRTEERAK:**

Raquel Diaz Larracoechea (PSE-EE) zinegotzia 18:15etan sartu da bilera gelara, gai zerrendako 3. puntuaren eztabaidan, bozketa aurretik.

Maria Ubarrechena (EAJ-PNV) zinegotzia 18:25etan sartu da bilera gelara, gai zerrendako 3. puntuaren eztabaidan, bozketa aurretik.

**INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria):** Arratsaldeon denoi. Hasiera emango diogu plenoari.

## 1.- AURREKO BILKURAKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.

Udal Plenoak, aho batez, 2014ko martxoaren 19an egindako bilkuraren akta onartu du.

## 2.- BEHIN-BETIKOZ ONARTZEA HIRI ANTOLAMENDUAREN PLAN OROKORRAREN 7. ALDAKETA (ALTZAURTI ETA ASUBEALDE) (2013HPOA0001).

Udal Plenoak, aho batez, Udal Korporazioa osatzen duten 21 zinegotzietatik bilkuran 17 daudela, eta beraz, Toki Jaudunbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 47.2.ll) artikuluan xedatutako gehiengo erabatekoarekin, Hirigintza Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“2013ko uztailaren 23a egindako osoko bilkuran Udalbatzarrak erabaki zuen hasiera batean ontzat ematea “ARRASATEKO HIRI ANTOLAMENDUAREN EGITAMU OROKORRAREN 7. ALDAKETA PUNTUALA”ren agiria eta jendaurrean jartzea.

Aldaketa horren helburua hau da:

.- Izapidetzen ari den HAPOren proposamenarekin bateragarri diren bi eskuharmen garatzeko aukera ahal bideratzea: Altzaurti harrobian birziklatzeko jarduera behin-betiko legeztatzeko irekitzearena eta Asubealde inguruan nekazaritza-abeltzaintza jarduera ezartzearena.

.- Aldaketa Puntualaren bitartez, alde batetik, *Altzaurti*ren kasuan lurzoruaren sailkapena aldatzen da eta sektorizatu gabeko lurzoru hiritargarri izatetik lurzoru hiritarrezin izatera igaroko da. Zonalde berri bat aurreikusiko da lurzoru hiritarrezinean, ñ*Altzaurti LHE*ò araubide berri baten bitartez antolatua.

.- Bestalde, *Asubealde*ren kasuan Aldaketa Puntualaren bitartez zonalde aldaketa emango da baita ere. Gaur egun ñ*Basoaren babeserako LHE*ò eta ñ*Garapen gordespeneko LHE*ò bezala izendatuta dagoen lursail bat ñ*Asubealde LHE*ò izatera pasatuko da, eta araubide berri bat aurreikusiko da honentzako ere.

.- Beraz aldaketak egiturazko hirigintza antolamenduaren maila dauka.

Jendaurreko izapide horretan ez da alegaziorik aurkeztu.

Udal Planeamenduaren Aholku Batzordeak, 2013ko urriaren 28an egindako batzarrean, hasieran onartutako agiriari buruzko aldeko txostena eman zuen.

Bestalde, aipatutako 7. Aldaketa Puntualaren inguruan Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Zuzendari Nagusiak, Departamentuaren eskumeneko gaiei dagokienez, adierazi du ez dagoela eragozpenik agiriari onarpena emateko.

Hori horrela, Udal Plenoak, 2013ko abenduaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen Aldaketa Puntualaren agiria behin behinekoz onartzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordera (COTPV) bidaltzea, dagokion txostena eman zezan.

Aurrekoaren harira, Udal Plenoak 2014ko martxoaren 19an egindako bilkuran Tokiko Gobernu Batzarrak 2014ko martxoaren 3an hartutako erabakia berrestu zuen, horren arabera onartuta geratu zen Aldaketa Puntualaren agiriaren eranskina, Lurralde Antolamenduko Batzordetik adierazitako zuzenketak jasotzen zituena.

Aipatutako eranskina Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari (COTPV) bidali zitzaion. Batzorde horrek 2014ko otsailaren 27an egindako bilkuran zera erabaki zuen, eragozpenik ez jartzea Lurralde Antolaketaren ikuspuntutik Arrasateko Hiri Antolamenduaren Egitamu Orokorraren 7. Aldaketa Puntualari. Hala eta guztiz, agirian URA- Ur Euskal Agentziaren txostenean jasotako loteslea den baldintza, Altzaurti tokiaren ingurukoa, jaso beharko litzateke.

Ondoren, Udalaren Zerbitzu Teknikoek "ARRASATEKO HIRI ANTOLAMENDUAREN EGITAMU OROKORRAREN 7. ALDAKETA PUNTUALA"ren testu bateratua idatzi dute, goian aipatutako eranskinaren edukia jasotzen duena eta baita URA- Ur Euskal Agentziaren txostenean jasotako loteslea den baldintza ere.

Udal Idazkariak egindako txostena ikusirik, eta Eusko Legebiltzarraren 2/2006 Legearen (lurzoruari eta hirigintzari buruzko legea, ekainaren 30ekoa) 104, 90 eta 91 artikuluetan xedatutakoaren arabera, hauxe proposatzen dio Hirigintza batzordeak Udal Plenoari:

**I.-** Behin betikoz ontzat ematea Teknikoek "ARRASATEKO HIRI ANTOLAMENDUAREN EGITAMU OROKORRAREN 7. ALDAKETA PUNTUALA"ren testu bateratua, Altzaurti eta Asubealde tokietan eragina duena.

**II.-** Aldaketa Puntual horren testu bateratuaren ale bat Foru Aldundiko planeamendu agirien errejistrora igortzea, bai paperean eta bai euskarri informatikoan.

**III.-** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara ematea behin betiko onespen akordioa eta aldaketaren edukia, goian aipaturiko errejistroan jaso dela adieraziz.

**IV.-** Behin betiko onespen akordioa lurralde historikoan hedadura duen egunkarian argitaratzea.

**V.-** Akordioa Euskal Herriko Lurralde Antolaketaren Batzordeari jakinaraztea.

**VI.-** Espedientearen ale oso bat, paperean eta diligentziatua, Euskal Herriko Lurralde Antolaketaren Batzordeari bidaltzea. Eta baita ere bidaltzea, behin betikoz onartutako dokumentuaren ale bat, euskarri informatikoan."

**INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria):** Bozketara pasatuko gara.

Bozketaren emaitza: **Diktamena AHO BATEZ ONARTUA izan da.**

| | | |
|---|---|---|
| **Bertaratutakoak** | **17** | |
| **Aldeko botuak:** | **17** | **BILDU (10), EAJ-PNV (3), PSE-EE (3) eta ARALAR (1)** |
| **Aurkako botuak:** | **0** | |
| **Abstentzioak** | **0** | |

## 3.- ñARRASATEKO ALDE ZAHARREAN TERMITA IZURRITEKO INSEKTUAK KENTZEKO ETA KONTROLATZEKO ZERBITZUAò ADJUDIKATZEA (2013CHOZ0015)

Udal Plenoak, aho batez, Hirigintza Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

"ARRASATEKO ALDE ZAHARREAN TERMITA IZURRITEKO INTSEKTUAK KENTZEKO ETA KONTROLATZEKO ZERBITZUA" kontratatzeko prozedura irekiaren kontratazio-mahaia 2014ko martxoaren 13an bildu zen, aurkeztutako eskaintzen proposamen ekonomikoak irekitzeko.

Onartutako eskaintza hau izan zen:

- RENTOKIL INITIAL ESPAÑA, S.A.
- SISTEMAS PARA LA HIGIENE Y CONTROL DE PLAGAS S.L.
- TECNICA SANITARIA AMBIENTAL S.L.
- ANTICIMEX 3D SANIDAD AMBIENTAL S.A.

Zerbitzu Teknikoek egindako txostenaren arabera, hauxe izan zen aurkeztutako proposamen desberdinek jasotako puntuazioa:

| Titularra | Txosten teknikoa | Jarduera programa |
|---|---|---|
| RENTOKIL INITIAL ESPAÑA S.A. | 28,00 | 7,50 |
| SISTEMAS PARA LA HIGIENE Y CONTROL DE PLAGAS S.L. | 23,50 | 10,00 |
| TECNICA SANITARIA AMBIENTAL S.L. | 19,50 | 9,00 |
| ANTICIMEX 3D SANIDAD AMBIENTAL S.A. | 30,00 | 6,00 |

Hori egin eta berehalaxe, onartutako proposamenen gutunazalak ireki ziren, egintzako helburukoak, eta emaitza hau izan zen:

| Titularra | Prezioa BEZ gabe | BEZ (%21) | Prezioa BEZ barne |
|---|---|---|---|
| RENTOKIL INITIAL ESPAÑA S.A. | 98.982,00 | 20.786,22 | 119.768,22 |
| SISTEMAS PARA LA HIGIENE Y CONTROL DE PLAGAS S.L. | 97.170,00 | 20.405,70 | 117.575,70 |
| TECNICA SANITARIA AMBIENTAL S.L. | 94.500,00 | 19.845,00 | 114.345,00 |
| ANTICIMEX 3D SANIDAD AMBIENTAL S.A. | 98.266,00 | 20.635,86 | 118.901,86 |

Ikusirik Zerbitzu Teknikoek egindako txostena, aurkeztutako memoria teknikoak aztertzen dituena, eta, bestetik, automatikoki zenbatu daitezkeen adjudikazio irizpideei dagozkien puntuak batuta, eskaintzen sailkapena hau izan zen:

| | | 1.- Kontratuaren prezioa | 2.- Txosten teknikoa | 3.- Jarduera programa | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | ANTICIMEX 3D SANIDAD AMBIENTAL S.A. | 52,89 | 30,00 | 6,00 | **88,89** |
| 2 | RENTOKIL INITIAL ESPAÑA S.A. | 52,51 | 28,00 | 7,50 | **88,01** |
| 3 | SISTEMAS PARA LA HIGIENE Y CONTROL DE PLAGAS S.L. | 53,49 | 23,50 | 10,00 | **86,99** |
| 4 | TECNICA SANITARIA AMBIENTAL S.L. | 55,00 | 19,50 | 9,00 | **83,50** |

Sailkapena ikusirik, Kontratazio Mahaiak, 2014ko martxoaren 10ean, proposatu zuen “ARRASATEKO ALDE ZAHARREAN TERMITA IZURRITEKO INTSEKTUAK KENTZEKO ETA KONTROLATZEKO ZERBITZUA” egiteko eskaintza ekonomikorik onena “ANTICIMEX 3D SANIDAD AMBIENTAL S.A.” enpresak egindakoa deklaratzea, eta errekeritzea hamar egun baliodunetan behin betiko bermea jartzeko eta beharrezkoa den dokumentazio gehigarria emateko.

Ikusirik 2014ko martxoaren 10ean Alkateak aipatu errekerimendua egitea erabaki zuela, eta 2014ko martxoaren 14an enpresak behin betiko bermea jarri zuela, 4.913,30 €koa, eta eskatutako agiriak aurkeztu zituela.

Aurreko guztia kontutan izanik eta Kontratazio Mahaiak egindako esleipen proposamenaren arabera, hauxe proposatu dio Udalbatzarrari Hirigintza batzordeak:

**I.-** "ANTICIMEX 3D SANIDAD AMBIENTAL S.A." enpresari adjudikatzea "ARRASATEKO ALDE ZAHARREAN TERMITA IZURRITEKO INTSEKTUAK KENTZEKO ETA KONTROLATZEKO ZERBITZUA", 98.266,00 €tan, BEZa sartu gabe, (118.901,86€, BEZ barne) eta 5 urteko epean.

**II.- "**ANTICIMEX 3D SANIDAD AMBIENTAL S.A." etxeari jakinaraztea, adjudikazioaren jakinarazpen hau jaso eta hurrengo hamabost egun baliodunetan Udaletxean agertu beharko duela administrazio agirian kontratua sinatzeko.

**III.-** Adjudikazioaren eta Kontratuaren formalizazioaren berri Kontratistaren Profilean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea."

**INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria):** Interbentziorik? Guk egiten duguna da adjudikatu enpresa bati eta anticimex enpresa hau da hartzen dauena kontratua, eta gero egindako alegazioak eta beraiekin hitz egiteko asmoa daukagu, a ver ze aukera dauzen horrek produktuak beraiek dakite badakigu produktu homologatuak direla eta legea betetzen dutela ez? Baina bueno, bai gelditu gara hitz egiteko alegazioei buruz zuek egindako alegazioak aztertzeko beraiekin.

**Publikotik (Nagore):** Galdera zen adjudikazioa egin duzuen momentutan ba hitz egin duzu balorau duzuela ekonomikoki. Danok dakigu dirua inportantea dela ez? Baina galdera da ia bakarrik balorau duzuen diru ikuspuntutik edo okurridu jatzuen galdetzea zuen buruari osasun maila gizakumeari edukiko dauen efekturik edo ze kontzekuentzia ekarri leiken, edo hausnartu duzuen ze azken finean ze zentzu daukan edifizioen estruktura refortzatzea eta saneatzea, azken finean gizakian osasuna kili-kolo jarri leike badau. Ez dauka zentzurik bakarrik baloratzea ekonomikoki, ze da alde zahar osoa eta etxeak jendea dago barruan. Orduan asuntua da serioa, eta adibidez, nik oso gutxi dakit temia ez? Dakiteten apurra da zu mueble bat zaharberritzen zazenian edo atake silofagoa karkomia akabetia gurozunian erabiltzen duzun produktuak enpresa horrek seguramente hortik joango dala ez? Silamon, silasel, carcomin,horre danak antzerakoak dira eta erabili behar duzu minimo guanteak eta maskaria eta hori da pieza txikitxo batekin. Orduan ondo dago baloratzea ekonomikoki ze danok dakigu dirua inportanea dALAa danon dirua dala. Baina ze zentzu dauka. Azkenian edifizioa ez da jauziko baina,nire gorputza, gure gorputzak ze kontzekuentzia eduki leike horrek luzera. Ez dakit toxikoz beteta dauz.

**INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria):** Bakarrik gauza bat. Guk produktuetan ez gara sartu, azkenean enpresa dauz hor adituak diezenak. Gai horretan eta hainbat interbentzio egon dira herri desberdinetan eta kontratu hori atera dugu eta enpresak aurkeztu egin dira, eta orduan egin duguna da adjudikatu enpresa bai oferta ekonomiko onena baina enpresa horrek bete behar dau legedia zorrotz eta zuek planteatzen duzuena be bidegarria bada ba begiratu beharko da

**MAIDER MORRAS (BILDU):** Arratsaldeon. Ez, termino berdinetan. Guk adjudikazioak egin gauenean ez bakarrik ekonomikoki suposatzen da baldintza batzuk bete behar izan behar dituztela ezta? Egixa da igual produktu horrekiko beste alternatiba batzuk ez ditugula ikusi eta eskertzen dotzuegu zuek etortzea beste planteamendu batzuk edo alternatiba batzuk ikusteko posible diren edo ez enpresa berak edo nahiko ikusiko gau pentsatu gure dou beti be ez dela izakia babestua dagoela nahiz eta produktu kimikoak zian baina zuek egindako alegazioetan oinarrituta gai bat izango da ondo aztertuko dana.

**Publikotik (Médico ambiental):** Bueno, ya sabéis que también hablamos en otra ocasión y hablamos con Anabel. Yo soy medico ambiental, entonces estoy muy preocupada por todo esto no? Y me asombra muchísimo que un ayuntamiento que va por el reciclaje etc., que seria otro campo de que hablar pero bueno me sorprende que no se preocupe ante la utilización de productos químicos muy peligrosos durante 5 años en toda la parte vieja con todo lo que ese supone como ha comentado Nagore para la salud de las personas.

Habiendo alternativas totalmente ecológicas y después de todas las alternativas ecológicas siempre nos queda el bórax, siempre nos queda el bórax. El bórax es un producto natural con su toxicidad como tal que no tiene nada que ver con los pesticidas que son productos químicos producidos por el hombre para matar que ya sabemos cuales son los efectos que tienen y yo quería remarcar dos cosas:

Las recomendaciones del Ministerio del Trabajo en cuanto al tratamiento de interiores con pesticidas: en primer lugar, elaborar un tratamiento integral de control de plagas donde primero estén todas las medidas biológicas y los insecticidas estén en último lugar. No sé si se ha hecho esto, si hay un Plan Integral de Control de Plagas que me gustaría que la empresa lo comentara.

Y otra cosa muy preocupante, que en la línea de las recomendaciones del Parlamento Europeo sobre el uso sostenido de plaguicidas esta también no utilizar plaguicidas nunca como método preventivo, puesto que son productos químicos muy peligrosos. Por lo tanto si hay que tratar unas casas que se puede tratar de forma ecológica no hace falta tratar las casas en las que no hay ningún problema no se debe utilizar los pesticidas como medio preventivo yo creo que esto es otra cosa importante.

Y luego sobre todo lo que ha comentado Nagore: la salud de las personas son productos químicos muy peligrosos que van a afectar fundamentalmente a los niños, a las personas mayores, a las personas embarazadas, a las personas con enfermedades ambientales, a personas con asma, con alergia, etc.

Los pesticidas son productos que en cantidades infimetesimales aceptan de forma importante a la salud de las personas. Entonces llenar todo el pueblo durante 5 años de pesticidas, a mí como medico ambiental, me parece una barbaridad. Simplemente yo quería que también lo conocierais vosotros, antes de aprobarla.

**JOXE ETXEBERRIA (ARALAR):** Produktuaren eztabaidan sartzeko nik ere ez daukat gaitasunik eta gainera ez dakit etxe honek zer erabili behar duen. Gainetik dakidana da nolabait etxeetan ez dala produktu hori sartuko baizik eta gune konkretu batzuetan eta horrekin nolabait tratatzen dutela. Dena den, horren esplikazioak izateko aukera izango dugula uste dut. Erantzun nahi nuena zan lehenengo interbentzioan esan duzuenean diruari begiratzen zaiola: ba hori behintzat argitu nahi nuke eta hartu dan enpresa hau lau enpresatik hirugarren karuena da eta orduan hemen gehien baloratu dena da txosten teknikoa eta txosten teknikoan bai daukala enpresa honek puntuaziorik hobeena, behintzat hori garbi gelditzea nahi nuke.

**Publikotik (Piter Encinas):** Bi adibide eta erderaz egingo dut ba azkenean euskaraz egingo banu ez ginateke bukatuko ni por el forro.Bi adibide: hace mogollón de años para atajar el problema de la procesionaria se estaba utilizando un producto que estaba homologado, aceptado, se le daba el visto bueno, pero el tiempo demostró que era puro veneno, es decir, aquí en Arrasate, en la zona, cuando había el problema de la procesionaria venían aviones nos echaban el dimilin y nos contaminábamos todo el mundo, no solamente las personas, sino las aguas, la flora, la fauna incluso hubo ciertos animales que tuvieron problemas de mantenerse en peligro de extinción como fueron ciertos anfibios y pájaros y aves también.

Entonces, y luego se demostró que por ejemplo en los huevos de las aves comía el calcio y entonces hubo problemas en ciertos animales. Quiero poner otro ejemplo para acabar lo que ocurrió en Estados Unidos con el DDT: aun habiendo voces ecologistas que estaban diciendo que el DDT era un veneno estuvieron echando durante mogollón de años y luego tuvo unas consecuencias en un número grande de personas y demás con enfermedades raras y demás. Entonces yo creo que aunque este homologado, antes de dar el ultimo paso de que es lo que echemos tengamos mucho cuidado. Yo tengo claro que habéis analizado o quiero dar por supuesto que se ha analizado donde esta, cuales son las causas, pero a la hora de echar una cosa u otra deberíamos de poner el acento porque no es lo mismo una cosa que otra porque si echemos veneno un plaguicida si llueve o si hace calor eso va a las aguas al suelo o se evapora.

**ARITZ ARRIETA (PSE-EE):** Nosotros, tal como se nos comentó en la comisión de urbanismo, efectivamente, y afortunadamente estamos en siglo XXI, y entiendo que la empresa adjudicataria no solamente esta homologada, sino que ha pasado todos los filtros que se deben de pasar. Y no estamos hablando,creo, que de fumigar, estamos hablando de situar en sitios específicos vamos a decir el veneno que haya que poner o lo que fuera para después se vaya extendiendo entre los propios

miembros de los bichos o lo que fuera hasta que llegue a la colonia, decir, que esto no es como se ha explicado al principio una fumigación de una mesa, la afección no es la misma, no es el mismo sistema. Entonces vamos a quitar un poco ese bulo de ese el principio, que no es una fumigación al uso. Es bastante mas complicado que todo eso.

Y entiendo también que esta empresa habrá trabajado en mas municipios que en Mondragón, y entiendo por lo tanto, que los informes técnicos que se nos han presentando que es lo que vamos a votar que eso conlleva que se vote la adjudicaron ahora pues lleve a que todo esta en orden. Y que no va a ser esa fumigación que comentabas tú, de que pasa un avión y que va a fumigar el casco antiguo, decir, no vamos a alarmar ahora al personal.
Vamos a ser un poquito mas técnicos, y en todo caso expliquemos que es lo que se va a hacer. Pero no creemos alarma diciendo que en los años 50 paso una avioneta, fumigó Mondragón y se quedo todo. Hombre, vamos a ponerlo y hablar en su justo término. Yo creo que hay que hacer caso lo que hacen nuestros servicios técnicos, tanto de la empresa como del ayuntamiento, que son los que han valorado el mejor de los sistemas.

Que hay algunas alternativas, es posible. Yo no voy a dudar, pero que estas nuevas posibilidades para atajar el grave problema, efectivamente, los edificios tienen un problema grave y eso hay que atajarlo. No por encima de los que vivimos en Mondragón, los que vivís, si es que vivís alguno de vosotros en el casco antiguo, pero yo creo que no se puede quitar valor a que los edificios que tenemos en el casco antiguo hay que mantenerlos y hay que buscar soluciones. Y esta solución no se ha encontrado de ayer a hoy. Se han ido valorando en las distintas comisiones que hemos tenido ha habido un proceso entonces yo creo que quitar hierro al alarmismo y yo creo que lo que hay que buscar son soluciones. Y esta yo creo que es una de las mejores alternativas que nos han presentadlo

**Publikotik (Mediku anbiental):** A mi me parece muy preocupante como medico ambiental todo absolutamente todo lo que has comentado y me parece superfuerte. La empresa que habéis elegido para tratar, que contestó en el periódico a lo que nosotros hablamos, tiene detrás una gran multinacional química y ya sabemos donde estamos.

Ya sabemos que no vamos a fumigar, ya sabemos que vais a poner cebos, sabemos lo que llevan los cebos, porque sabemos lo que se ha usado en Azkoitia. Entonces los cebos llevan unos productos químicos de las familias de las benzoilureas muy toxicos para el ser humano. Una de ellas ya ha sido prohibida su uso en la UE debido a la toxicidad que tenia sobre todo en las abejas y en otros animales.
Otro de los productos que se ha utilizado en cebos que la empresa decía que era menos toxico que la sal de mesa ese producto esta demostrado por la agencia de protección ambiental de Estados Unidos que es un producto cancerigeno, y se sigue usando, y es de la familia de lo que queréis usar. Son productos muy tóxicos, muy peligrosos y no se pueden envenenar. Y no se puede decir que cumplen las normativas. No se puede decir eso en este momento. No se puede decir eso, y no es alarmar en estos momentos no se puede informar a la población sin alarmar porque la situación es alarmante y llenar todo el casco urbano de pesticidas durante 5 años es muy alarmante. Y si a tí no te lo parece tendrías que plantearte porque estas ahí, si estas defendiendo a los ciudadanos o lo que estas defendiendo.

Yo como medico ambiental no puede permitir que estés diciendo esas cosas.

**ARITZ ARRIETA (PSE-EE):** Desde luego no le voy a permitir a usted que me diga a mi lo que estoy defendiendo. Yo sé lo que tengo que defender perfectamente, yo no he leído sus informes técnicos. Yo sí he leído los informes técnicos que me han presentado. Y no tengo que creerle a usted más que a lo que me dice le UE porque esta empresa esta homologada por la UE. Y esta homologada en Estados unidos. Luego usted no me va a decir a mi como tengo que defender a los ciudadanos porque entonces esta infravalorando también la decisión de todo este plenario y a las personas que estamos aquí decidiendo por lo que es mejor para los ciudadanos. Quiero decir, si usted no me va a presentar a mi documentación en orden y va a contradecir lo que nos ha presentado esta empresa y los técnicos, porque está usted poniendo en valor, la profesionalidad de los técnicos de este ayuntamiento pues yo creo que la que esta mal informando es usted en todo caso. Porque yo me fio absolutamente de lo que me dicen nuestros técnicos de urbanismo.

**MAIDER MORRAS (BILDU):** Bukatzeko, bakarrik hemen uste dut ez dala gatazka bat sortu behar honen inguruan. Lehen esan dotzuetena, eskerrik asko, kontuan hartuko alegazioak eta kontuan hartuko dugula esaten dugunean kontuan hartuko oso serixo, hau da, zuek emandako informazioa kontrastau in bida, bai edo bai, herritarrak zaren heinean gure aldetik desde luego begiratuko dugula. Horrek ez dau nahi esan hartu gauen erabakia edo presentau jakun informeak ez gutxietzi bat ez besteak in biogauna da gauzak konparau eta gauzak ondo estudixau, ikusi efektibamente noraino heltzen dan toxizidade hori egon leikeena eta ikusi zeintzuk izan leiken alternatibak eta zeintzuk gaia aztertu ondo. Hori da nik esan neikena.

**Publikotik:** Argi dauena da enpresa bat aukeratzen baduzue ez daukazue ezebez aukeratzeko, eske hori nik argi daukat. Orduan ez dakit. Gaur egungo enpresak asko dauka produktu kimikoak bere barnean, ez dabe planteatzen erabiltzea beste produktu batzuk. Orduan ia aukeratzen bozue enpresa eginda dago. Nahiz eta ikusi produktuak toxikoak direla. Dorleta ez dala politikoa baina da medikua asko daki eta espezialista bat da. Urte askoko esperientziakin eta ez dago hemen denbora pasa badaki zertaz ari dan eta gure dauena da zuei be informatzea ez da besterik. Eta zuek be guri entzutea eta kontuan edukitzea ez esaten dana eta preokupazioa ez?

Azkenean ez dakit ez da zuen kontra gazela edo adjudikazio horren kontra sino ke esatea haber kontuz azkenean gabiz egunerokotasunean toxikoz betetzen eta ez dakit dala herrixan, alde zaharrean eta etxeetan. Gauza serioa dala orduan zeozegatik esaten dala, esaten dana eta gainera dakixen jendeak. Eskertzen dala entzutea.

**INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria):** Ez dugu errepikatu behar, guk errepikatuko dugu baina gaur tokatzen da adjudikatzea eta prozedura guztia bukatu da eta orduan, oin ba gaur hori tokatzen da, egingo duguna da adjudikazioan alde ia gauzenok bozkatu. Begiratuko dugu zuek egindako alegazioak ere bai enpresarekin haber ze aukera dauzen.

Bozketara pasatuko gara.

Bozketaren emaitza: **Diktamena <u>AHO BATEZ ONARTUA izan da.</u>**

| | | |
|---|---|---|
| **Bertaratutakoak** | **19** | |
| **Aldeko botuak:** | **19** | **BILDU (10), EAJ-PNV (4), PSE-EE (4) eta ARALAR (1)** |
| **Aurkako botuak:** | **0** | |
| **Abstentzioak** | **0** | |

## 4.- HASIERAKO ONESPENA EMATEA UDAL ORDENANTZARI, IRISGARRITASUN EGOERA HOBETZEKO DESJABETZA JARDUNBIDEA ARAUTUKO DUENA.(2014HORD0001).

Udal Plenoak, aho batez, Hirigintza Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

"IRISGARRITASUN EGOERA HOBETZEKO DESJABETZA JARDUNBIDEA ARAUTUKO DUEN UDAL ORDENANTZA"ren agiria aurkeztu da:

- Ordenantza horren helburua da nahitaezko desjabetzea bideratzeko irizpideak eta metodologia finkatzea, indarrean dagoen legedian irisgarritasunari dagokionez aurreikusten denaren ildotik, eta hirigintzaren alorreko legedi korrelatiboa aintzat hartuta hartara jo beharra egokitzen denerako.

- Ordenantza erabilera nagusia bizileku kolektiboa duten eraikinei aplikatuko zaie, izaera osagarria duten beste erabilera batzuk eraikin horiek izatearen kalterik gabe.

- Ordenantzan jarritakoaren arabera, edozein higiezin (etxebizitza, lokala, trastelekua, eta abar) desjabetu liteke, obrek edo esku-harmenek eragiten duten zorrak, besteak beste argi-zorrak eta ikusmen-zorrak, barne, baina kasu horietan balizko eragin kaltegarriak gutxitzeko neurriak aurreikusi beharko dira.

- Era berean, aplikazio-eremutik aparte geratzen dira HAPOak zehaztutako berariazko antolamendutik kanpoko kasuan aurkitzen diren eraikinak.

Aurkeztu den agiria aztertu ondoren eta ikusirik apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedatutakoa eta apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 56. artikuluan xedatutakoa, toki araubideko arloan indarrean dauden legezko xedapenen testu bateratua onartzen duena.

Hirigintza batzordeak akordio hau hartu dezan proposatu dio Udalbatzarrari:

**I.-** Onartzea hasiera batean onartzea "IRISGARRITASUN EGOERA HOBETZEKO DESJABETZA JARDUNBIDEA ARAUTUKO DUEN UDAL ORDENANTZA"ren agiria.

**II.-** Jendaurrean erakustea aipatutako Ordenantza hori, HOGEITA HAMAR egunean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen duten egunetik hasita, interesdunek bidezkotzat jotzen dituzten alegazioak eta iradokizunak egin ditzaten.

7/1985 Legearen 49. artikuluaren azken paragrafoan ezarritakoaren arabera, jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ezean, behin betiko onartutzat joko da Ordenantza."

**INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria):** Bozketara pasatuko gara.

Bozketaren emaitza: **Diktamena <u>AHO BATEZ ONARTUA izan da.</u>**

| | | |
|---|---|---|
| **Bertaratutakoak** | **19** | |
| **Aldeko botuak:** | **19** | **BILDU (10), EAJ-PNV (4), PSE-EE (4) eta ARALAR (1)** |
| **Aurkako botuak:** | **0** | |
| **Abstentzioak** | **0** | |

## 5.- UDALBATZARRARI JAKINARAZTEA UDALAREN 2013KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN ONARPENA (2014RBAR0009).

Udal Plenoak, Ogasun Batzordearen ondoko diktamenaren berri hartu du:

"Indarrean dagoen aurrekontuen legean ezarritakoa betetzeko Udalbatzarrari jakinarazten zaio, Udalaren 2013ko aurrekontuaren likidazioa dela-eta 2014ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak honako akordioa hau hartu zuela:

**<u>"Udalaren 2013ko aurrekontuaren likidazioa onartzeko proposatzea.</u>**

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Ogasun Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Kontu-hartzaileak 2013ko aurrekontuaren likidazioaren berri eman du, eta zenbaki laburpena da hauxe:

## 1. 2013KO AURREKONTU EMAITZAREN KALKULUA

| | | |
|---|---|---|
| A | Eskubide garbiak, 2013ko ekitaldiko likidazioa | 28.553.853,51 € |
| B | Onartutako obligazio garbiak, 2013 | 29.272.441,01 € |
| | | ------------------------- |
| C | 2013ko ekitaldiko aurrekontu operazioen emaitza (A – B) | -718.587,50 € |
| D | Deuseztatutako gastuen soberakinen obligazioak | 634,89 € |
| E | Deuseztatutako hondarren diru-sarreren eskubideak | -2.098.461,82 € |
| | | ------------------------- |
| F | Itxitako ekitaldien aurrekontu operazioen emaitza (D + E) | -2.097.826,93 € |
| G | 2013ko ekitaldiko aurrekontu emaitza (C + F) | -2.816.414,43 € |
| H | Doitzea: | |
| | H.1 - 2012ko likidazioko diruzaintzako soberakinez finantzatutako obligazio onartuak (eranskinak – 1.a) | 1.381.719,95 € |
| | H.2 – 2011ko ekitaldiko finantza doitzea (eranskina 2) | -58.799,13 € |
| | | ------------------------- |
| | DOITZEA GUZTIRA (H.1 + H.2) | 1.322.920,82 € |
| **I** | **AURREKONTU EMAITZA DOITUA (G + H)** | **1.493.493,61 €** |

## 2. 2013KO LIKIDAZIOKO DIRUZAINTZAREN SOBERAKINA

| | | |
|---|---|---|
| **1** | **KUTXAKO IZAKINAK, 2013-12-31n** | **3.235.736,51 €** |
| 2.1 | Ekitaldi korrontean kobratzeke daudenak | 2.434.714,41 € |
| 2.2 | Itxitako ekitaldietan kobratzeke daudenak | 1.976.233,16 € |
| 2.3 | Aurrekontukoak ez diren zorrak | 757.358,77 € |
| | | ------------------------- |
| **2** | **KOBRATZEKE DAUDEN SALDOAK GUZTIRA (2.1+2.2+2.3)** | **5.168.306,34 €** |
| 3.1. | Ekitaldi korronteetako hartzekodunak | 2.268.569,27 € |

| | | |
|---|---|---|
| 3.2 | Itxitako ekitaldietako hartzekodunak | --- |
| 3.3 | Diru-sarreren aurrekontuaren hartzekodunak | --- |
| 3.4 | Aurrekontukoak ez diren hartzekodunak | 1.726.646,02 € |
| | | ----------------------- |
| **3** | **ORDAINTZEKE DAUDEN SALDOAK GUZTIRA (3.1 + 3.2 + 3.3 + 3.4)** | **3.995.215,29 €** |
| | | ---------------------- |
| **4** | **DIRUZAINTZAKO SOBERAKIN GORDINA (1+2-3)** | **4.498.827,56 €** |
| **5** | **DOITZEA:** | |
| | - AFEKTATUTAKO FINANTZAKETA (Ikusi eranskina- 3.a) | -666.550,63 € |
| | - ZALANTZAZKO KOBRAKETA (Ikusi eranskina- 4.a) | -1.379.448,26€ |
| | | --------------------- |
| | DOITZEA GUZTIRA (5) | -2.045.998,89 € |
| 6 | **GASTU OROKORRETARAKO DOITUTAKO DIRUZAINTZAKO SOBERAKINA (4-5)** | **2.452.828,67 €** |

